



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

OHARRA PILOTALEKUAREN EGOKITZE LANAK

Ohar honen bidez jakitera eman nahi dizuegu Larraulgo pilotalekuaren egokitze lanak, 2021eko urriaren 4ean hasiko direla, azaroaren 15erako bukatzea aurreikusten delarik.

Ondorioz, lan hauek irauten duten bitartean **Pilotalekua itxita egongo da**, eta aurrean dagoen aparkalekuan aldamiaoa jarri behar denez, autoak ezingo dira bertan aparkatu.

Beraz, Pilotalekuaren aurrealdean dagoen aparkamenduan urriaren 4erako autorik ez uztea eskatzen dizuegu.

Lan hauek eragingo dituen eragozpenak ulertuko dituzuelakoan, agurtzen gara.

Larraulen, 2021eko urriaren 1ean

UDALA